

88. zk.
2000ko apirila

ARRAKO FORU ALDUNDIA.
GAZTE DIA SPILA. UDA



COSYIN

CONTRA

ALAVES

Europako

BIDEAN

globenik

Liburudenda

"MINTZATUZ SUA PIZTEN DA,
HILTZEN IXILDUZ"



Benito Ginea kalea, 2
GASTEIZ
Tel/Faxa: 945 25 75 14

- **PRENTSA**
- **ALDIZKARIAK**
- **FASZIKULUAK**
- **LIBURUAK**
- **PAPERDENDA**
- **EUSKAL
MUSIKA**
- **BIDEOAK**
- **OPARIAK**
- **PUZZLEAK**
- **JOKU**
- **DIDAKTIKOAK**
- **ETA ABAR...**

APIRILA

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	☺	5	6	7	8	9
10	☾	12	13	14	15	16
17	☺	19	20	21	22	23
24	25	☾	27	28	29	30

Prudentzio Deuna
Zorionak Gasteiz! Zorionak Araba!

hilabete honetan



12... 14. orr.
Zukua
Hauteskundeak...
... eta orain, zer?



26... 27. orr.
Literatura.
Karmele Jaio.

• atalak •

4. orr. zizka-mizkak - 8. orr.
hamaika kontu - 10 orr. nik uste!
17. orr. Kozkortuz - 32. orr. Zeuk
aukeratu! - 34. orr. Komikia

22... 23. orr.
Stop
Desalojo.



15. orr. Bertsolaritza.
Prudentzio Deuna XI. Saria.

16. orr. Euskara harat-honat.
Berdearen eguna.

21. orr. Elhuyar.
Aharrausiak.

24. orr. Publizitatea
euskaraz (II).

28. orr. Herririk Herri,
Hizkuntzaz hizkuntza.
Kultura eta tradizioa.

29. orr. Euskaltasunean lagun.
Izaskun fajardo Villaluenga

30. orr. Sasoian.
Cosmin Contra.

FORU ALDUNDIAREN AZKEN BERRIAK, KULTURA ETA GEU ALDIZKARIA

Apirilean jada eta Foru Aldundiaren berririk ez Kultur arloko dirulaguntzei dagokielarik (halere, uda arte Foru Aldundiaren zenbait ekintza iragartzeko aldizkarian PUBLIZITATEA jartzea erabaki dute...). Subentzioetarako ez dagoela dirurik eta abar... 1.000.000 "galduta", 1.000.000 gutxiago aurtan GEU ALDIZKARIAREN aurrekontuan, zeharo beharrezkoa dena... Orain arte diruz oso juxtu eta arazoekin ibili garela kontuan izanik, hemendik aurrera... Penagarria eta oso tristea da halako gauzak gertatzea... Ulertezina eta onartezina...

Gure irakurle, harpidedunei, **MEZU BAKARRA**:

- KOLABORATU GUREKIN HARPIDEDUN BAKAR 1 EGINEZ (Zehaztu harpidetza berria egin duen harpidedunaren izena). ZUETAKO BAKOITZAK HARPIDEDUN BAKAR 1 EGINEZ, EGUNGO HARPIDEDUN KOPURUA BIKOIZTUKO GENUKE... SEKULAKO LAGUNTZA ALDIZKARIARENTZAT!!! BAKAR 1, BAKAR 1...

***Guztion artean, behintzat, 500 harpidedun berri egiten baditugu, guztiz behar-beharrezkoa dugun "1.000.000 hori" lortuko genuke!!!

-ETA DIRUZ KOLABORATZEKO...
GEU ALDIZKARIAREN KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA (VITAL KUTXA): 2097 0167 83 0008061533

Mila esker bai "bakar 1" kanpainari eusten ari zaretenoi zein gure kontu korrontean dirua ingresatu duzuenoi!!!

GEU Elkartearen ekimenez egina



Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate.
Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.
Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.
Argazkiak: Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B.
Maketa: DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola.
Irudigilea: Mikel Valverde. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldua, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea:** Edurne Begiristain. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988.

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



zenbakia

65.500

Pezeta. GEU ALDIZKARIRAKO

Momentura arte kopuru hau da **aldizkariari laguntzeko** osatzen ari garen "**Larrialdietarako bote**"rako eskuratutakoa...

Gutxi da bai, baina izugarri ongi etorria...

Eskerrik asko diruz gurekin kolaboratzen ari zaretenoi!!!

Oraindik Foru Aldundiaren aferaren berririk ez dago, eta honek ez du itxura onik... Hortaz, **geurekin** diruz kolaboratzeko, orri honetan duzue gure kontu korrontearen zenbakia...

BEHAR DUGU-ETA!

ikusi-makusi

ZORIONAK ALAVES!!

Argazkia: Edorta Sanz.



araba bixotzian



- Antòñana -

Nikel Valverde 2000

izenak

1. Imanol Duran Escabias

“Izpirituen Menpe”.

Mendebaldea D.B.H. Institutua

2. Sheila Gonzalez Alonso

“Despejatu X”.

Koldo Mitxelena Ikastetxea

3. Joseba Lpz. de Luzuriaga

“Herri Madarikatua”.

Mendebaldea D.B.H. Institutua

Hiru gazte hauek izan ziren S.A.M.Ak (Arabako Ikus-entzunezko Medioen Elkarte), D.B.H.-ko arabar ikasleei zuzendua, antolatu Filme Laburren Gidoien (euskaraz eta gaztelaraz) Lehen Lehiaketa-ren irabazleak.

Antolatzaileen esanetan, aurkeztu lan gehienak euskaraz izan ziren.

eleka

“Kirola egiteko ohitura izateaz gain modu orekatuan elikatzen bagara, osasuntsu eta lasaiago sentitzeraino heldu ahal izango gara”. **CONSUMER**

“Laneko harremanak euskalduntzeko laguntza ematen dugu”. Ernesto Ibarluzea, Euskaraz Bizitzeko Hitzarmeneko koordinatzailea. Gara

“Ezin dugu Gernikakoa ahaztu”. Mikel Laboa. Irutxulo

“Kameraren argia piztean, argia pizten zait barruan”. Klaudio Landa, Sorginen Laratza-ko kidea. Gara

“Ume pobre bat naiz eta herri aberats batean bizi naiz. Baina neuk ere amets egiteko eskubidea dut...”. Cristiano Felipe Bosa, 9 urte, Brasilgo lur gabeko umea. Txalaparta aldizkaria

“Herri honek ibilbidea beti aldapan egin behar izan du eta oraingoa ere ez da laua. Hala ere, Euskal Herrian eskalatzaile onak daude. Felix Iñurrategi. Gaztetxulo

“Itoizko urtegian hondamendi arriskua handia da”. Patxi Gorraiz, Itoizko Koordinakundeko kide eta bozeramaile. **ARGIA**

naturaren isladak

Arabako Natur Institutua Araba eta bere inguruko Ondare Naturala aztertzea, dibulгатzea eta konserbatzea helburu nagusiztat dituen elkarte zientifiko eta kulturala da. (tfnoa: 945 24 66 06)

Martxoko irudiaren azalpena: Etxe-txolarreak (*Passer domesticus*) kimatzen ari zen intsusa (*Sambucus nigra*) baten adartxoetan Bioleta (*Viola odorata*) Momentu honetan zenbait txokotan aurkitzen dugun usain gozoko lorea.



IN
ARABAKO
NATUR
INSTITUTUA

iritzia Garbiñe Ortega

Guraritik errealitatera: Zergatik ez?

Aurreko mendean (edo honetan izan zen?) ospatutako Euskadi-Nigeria futbol partiduak, urtero bezala, euskal selekzioaren ofizialtasunaren inguruan polemika piztu du berriki. Urteak pasa ahala, pisu gehiago hartzen ari den kontua dugu. Ez pentsa gaurkoa denik, ordea. Euskal Selekzioaren jatorria Espainiako Guda Zibila arte doa. Orduko euskal kirolari onenak aukeratuak izan ziren helburu bakar batekin: mundutik zehar sakabanatuta zeuden erbesteratu euskaldunak itxaropenez betetzea.

1993. urtean ofiziala izateko aukera lantzen hasi zen. Zazpi urte pasa eta, nahiz aurrerapauso ugari eman diren, helburua ez da bete; Euskal Herriko kirol selekzio guztiak nazioartean lehiatzen ikustea, alegia. Arazoa, zein da? Egia esanda, oztopo batzuk badira, egon. Horretarako Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeak (ESAIT) urte guztian zehar lanean jarduten du. Arazo legegileak gaintitu beharra dauka, nazio moduan ez baikaude ezagututa.

Oraindik badago lan astuna egiteke. Baina izan gaitezen baikor. Lehendakaria partidu sonatu horren prentsaurrekoan azaldu zen bezala. Bere esanak: "Selekzioa, gizarteak nahi duenean. Aznarrek ezezkoa eman duen arren, euskal gizartea da protagonista eta ez arduradun politikoak".

Euskal gizarteak selekzio propioaren nahia arras erakutsi du. Ezbairik gabe, dagoeneko lagunartekoak ez dira nahiko. Guraritik errealitaterako zubia eraikitzeke tenorea da. Giroan, zale eta kirolarien artean, ilusioa nabaritzen da. Honez gain, nazio gutxitua eta txikia garen arren, maiz erakutsi dugu ez garela hutsaren hurrena!

Egoera honen aurrean, bati baino gehiagori, hortaz, ulertezintasun batek hartuko dio barrena. Eta orduan, galdera ikur bat espresioan duela, bere buruari ondokoa esango dio: "Zergatik ez da gauzatzen?".

motz - motzean
Leire Lopez de Aberasturi

PRUDENTZIO DEUNAREN egunaren bezperan egiten den Danborradaren antolatzaileek ezingo dute beren 25. urteurrena nahi bezala ospatu. Diputazioaren aurrekontuen murrizketak Danborrada ere arriskuan jarri duela adierazi eta ekitaldi berezietarako dirurik ez dagoela azaldu dute.

ANDER AUDIKANAK, 17 urteko gasteiztarra eta Duranako Ikasbidea ikasitako ikaslea, Euskaltzaindiak ematen duen Resurrección M^a de Azkue eleberrir saria irabazi du "Ostadarraren koloreetan zehar" lanarekin.

AZKEN HILABETEETAN euskararen aldeko ekimenak aprobata dituzte Trebiñon. Horien artean bat azpimarra daiteke, Trebiñoko Udal Batzak herrietako euskal izenen zerrenda osatzea eskatu duela hain zuzen. Euskararen Akademia lanean dago janarik.

2000. URTEKO jaietan txosnak orain arteko lekuan kokatuko direla

erabaki da azkenen negoziazio luzeak izan eta gero. Hala ere, datorren urtean kokaleku berria bilatu beharko dela iragarri du Udalak: Katedrale berriaren atzeko aldean aparkalekua egingo dela azaldu dute eta, beraz, Luis Heintz kalea libre egon beharko da.

PARKEEI BURUZ egin den azterketa batek oker larriak aurkitu ditu Gasteizkoetan. Azterketak dioenez, Gasteizko zabue-tako %57k oker larriak dituzte eta hiriko parke publikoen egoera EAEko hiriburuaren artean okerre-na da.

SIDENORREK ZARAMAGA auzoan duen lantegia urtarilean itxiko zela iragarri bazuen ere, lanean jarraituko du ekaina amaiera arte. Basauriko lantegiak hartuko du Gasteizko ekoizpena eta bertako labea ez dago oraindik prest. Horixe da atzerapenaren arrazoia. Auzokoak haserre daude kutsadurak eta zaratak pentsatu baino gehiago iraungo dutelako.



Ray-Ban gaur egungo begiradak.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

Arabako Foru Aldundia. Gaztediaren Foru Erakundea

Primeran pasa!!!



Udalekuak 2000

Aurreinskripzio data: Apirilaren 3tik 14ra bitartean.
Adjudikazio data: Apirilaren 18an zozketa publikoaren bitartez erabakiko da eskabideak betetzeko hurrenke-
ra. Behin-betiko izena ematea maiatzaren 2tik aurrera
egingo da.

Ordutegia: Goizeko 8:30etatik arratsaldeko 3:00ak
arte. Apirilaren 5ean eta 12an, asteazkena, arratsalde-
z ere bai, 16:30etatik 18:30etara.

Lekua:

- Gasteizen: Arabako Foru Aldundiaren bulegoetan.
Jesusen Zerbitzarien kaleko 5 zenbakian.

- Gasteiztik kanpo: Herrietako biztanleek eskualdeko gizarte eta kultura suspertzailea-
ren bitartez egin dezakete izena ematea, baita Audio, Amurrio, Oka-Iruña, Legutiano,
Alegria-Dulantzi eta Bastidako Udaletan ere.

Telefono zenbakiak:

• 945 18 19 95 (Jesusen Zerbitzariak 5-behea)-IZENA EMATEA

• 945 18 19 88 (Probintzia plaza, 5)-INFORMAZIOA

Dokumentazioa: Familia Liburuaren fotokopia.

Kuota: 7 eguneko txandak, 12.500 pta. / 15 eguneko txandak, 25.000 pta.



2000ko Uda Barnetegia

Edozein hezkuntza eredutako neska-mutilentzat zuzen-
dutako ikastaroa da, ekintza-jolas giroan eta praktikan
oinarritutako ikaskuntzan euskararen erabilera, uler-
kuntza eta ezaguera errazteko.

Tokiak: BARRIA (A eredu-80 plaza))/ ESPEJO (B, D ere-
duak-50 plaza)

Data: 1-8/9

Kuota: 19.000

Partaideak: 1986-90 (biak barne) jaio neska-mutilak.

Esleipena: Ekainaren 4tik aurrera inskripzio (apiriletik
aurrera) ordenaren arabera (Jesusen Zerbitzarien kale-
an; 945 181 995) / Gasteiztik kanpokoentzat: inskripzioa telefo-
noz egin daiteke.

an; 945 181 995) / Gasteiztik kanpokoentzat: inskripzioa telefo-
noz egin daiteke.

Dokumentazioa: Familia Liburuaren fotokopia.

Ingeleseko Udalekua 2000

Lekua: Espejoko aterpetxea

Datak:

-Gaztelaniako txanda: Uztailaren 1etik 14ra bitartean

-Euskarazko txanda: Uztailaren 16tik 29ra bitartean

*Txanda bakoitzean 90 haur izango dira.

Baldintzak:

- 1984-1987 (biak barne) bitartean jaiotako neska-mutilentzat.

- Dagokion ikasturteari egokitzen zaion ingeles maila eskatzen da.

Aurreinskripzio data-Adjudikazio data-Ordutegia-Lekua-Telefonoak eta Dokumentazioa:
ikus. Udalekuak atala (Udalekuetarako ezarritako data eta ezaugarri berberak).

Kuota: 37.000 pta.

Gazte bidaiak 2000

Baldintzak:

-Arabian bizitzea.

- 1982ko abuztuaren 1etik eta 1986ko abenduaren
31 bitartean jaio izana.

- Itsasoko bidaietarako beharrezkoa da igeri egiten
jakitea.

Aurreinskripzio data-Ordutegia-Lekua-Telefono zen-
bakiak:

ikus. Udalekuak atala (datu berberak).

Dokumentazioa: NANA eraman behar da

inskripzio txartela betetzeko egunean.



	BIDAIK	EGUNAK	KUOTA	IHARDUERAK
1985 eta 1986an jaiotakoentzat	Hondartza eta natura La Garbinada-n	2000-VI-28 / VII-7	28.000	Kirola eta abentura bertako Itsas-eskolan
	Hondartza eta Natura Benicasim-en	2000-VI-1/ VII-15 eta 2000-VII-16 / VII-30	41.000	Itsas kirolak eta naturako jarduerak
	Nautika La Manga del Mar Menor-en	2000-VI-1/ VII-15 eta 2000-VII-16 / VII-30	37.500	Nautika ikastaroa: bela, piraguismoa, windsurfa...
	Hondartza eta natura Cadizeko Badian	2000-VII-1/ VII-15	41.000	Ura eta natura
1983, 1984 eta 1985an jaiotakoentzat	Askotariko abentura kirolak Pirinioetan	2000-VI-30 / VII-11	40.000	Rafting, eskalada, espeleologia, kayak, sakanak eta Erronkariko abelbidea bizikletaz
	Errege Abeldiada bizikletaz	2000-VII-13 / VII-24	40.000	Erronkaritik Gredosera. Bizikleta piraguak, zaldiak, eskalada
1982ko abuztuaren 1 eta 1984ko abenduaren 31 bitartean jaiotakoak	Europako Herriak. Italia	2000-VI-3 / VII-17 eta 200-VII-16 / VII-30	68.000	Frantzia, Suitza eta Italiako Alpeak. Apeninoetako Parke Naturalak. Erroma eta Florentzia

GAZTEIAREN
FORU
ERAKUNDEA



INSTITUTO
FORAL
DE LA JUVENTUD



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

TXAPELA BURUAN IBILI MUNDUAN

Azken hilabeteotan Enekoren berririk ez dugu izan, ezinezkoa izan baitzaio... Hona hemen Indiara iritsi zeneko gutuna.

AZKEN BERRIAK: ENEKOK BIDLITAKO AZKEN POSTA ELEKTRONIKOAK DIO KALKUTA, INDIA UTZI ETA BANGKOK-EN DAGOELA... ASMOA, INDONESIA JOATEA. ORO-TARA, URTE BETE BAINO APUR BAT GEHIAGO BIZIKLETAZ MUNDUAN ZEHAR BIDAIATZEN, 17.000.000 km-tik gora... HURRENGO ALEAN, BERRI GEHIAGO!

Kaixo lagunok:

Iritsi naiz Indiara eta utzi ditut atzean jada herrialde musulmanak, Turkia, Iran eta Pakistan. Gauza guztiek bezala, gauza onak eta gauza txarrak dituzte. Jendea oso atsegin eta abegitsua da, Islamak horixe agintzen baitie. Herrialde hauetan, gizonen bizitza soziala (emakumeek ia ez dute bizitza sozialik) halako taberna txiki batzuetan egiten da: esertzeko banku batzuk daude gela hauetan eta gizon batek bertan edaten den edari bakarra, "txai" deritzona, prestatzen du. Luisek –Istanbulen aurkitu nuen iruindar hau bere bizikletaren gainean eta harekin etorri naiz Indiara– eta nik batzuetan jendeak te apur bat hartzeko etxe atarrietatik egiten zigun gonbita onartu egiten genuen. Hasieran elkarrekin komunikatzea ez zen gauza erraza izaten, ez baikenuen hizkuntza komunik, baina ez zen ezinezkoa ere. Gainera, aspalditik behin eta berriro errepikatzen zen errito hura ondo ezagutzen genuen: bizikletak ate ondoan utzita, etxe barrura sartzen ginen jendez inguratuta, guztiei agur eginez; orduan, leku onenetan eserita zeuden pertsonak altxatu egiten ziren beren lekuak guri uzteko, eta txai ateratzen zuten. Lehenengo 10 minutuetan guztien begiek egiten genituen mugimendu guztiak arreta handiz jarraitzen zituzten, baina, berehalaxe, normaltasunera itzultzen zen dena eta zeu bihurtzen zinen behatzaile.

Txai apur bat edan eta pixka batez atsedenean egon ondoren, berriro ere errito ber-



bera: alferrik izango zela jakin arren, edariak ordaintzeko keinua egiten genuen, lagun berri horiez guztiez inguratuta kanpora irteten ginen eta, bizikletak hartuta, agur egiten genien, hemen egiten den modura, eskuineko eskua bihotz gainean ezarrita, eskerrak eman ez.

Bestalde, herrialde hauetan betiko arazoa sumatzen da: emakumearen egoera. Iran omen da txarrena, baina ez da Turkia edo Pakistan baino okerragoa izan horretan. Khomeinik eguneroko bizimodurako erdutat Korana ezarri zuen, baina neska eta mutikoen zat nahitaezko eta doako hezkuntza ere ezarri zuen eta, beraz, irandar emakume ikasiek beren eskubideak defendatzeko gaitasun handiagoa dute. Horrela, hirietan erosketak egiten, kafetegietan, auto bat gidatzen edota banku bat zuzentzen ere ikus daitezke, hori bai, txador delakoa jantzita beti.

Pakistanen kasua hunkigarriagoa da. Herrialde honetan ez dago eztabaida daitekeen arau idatzirik, tradizioak berak egiten du araua eta, tradizioak dioenez, emakumeek etxean egon behar dute. Horrek arazo ugari sortzen ditu: batetik, jarduera faltagatik emakumeek arazo fisiko eta psikologiko ugari sofritzen dituzte eta, bestetik, kaleetan emakumerik ez ikusteak halako gogogabezia eta geldotasun sentsazio bat sortarazten du; edozein hiritan, kaleetako hauts eta zikin artean sumatzen da hori.

Orain Indian gaude eta dena aldatu da apur bat, baina hurrengo batean kontatuko dizuet hori.

ENEKO



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

PRUDENTZIO DEUNA: HEMEN ala KANPOAN

Jakina denez, apirilean aurrera goaz eta eta laster "San Prudentzio" jaiak iritsiko dira. Festa hauek direla eta ez direla jendeak egun hauetarako duen asmoa ezagutu nahi izan dugu. Hona hemen zer erantzun diguten!

1) Hemen igarotzen al dituzu "San Prudentzio" jaiak?

2) Egun hauetako zein ekitaldi duzu gustukoen ?



Luis. Jubilatua

- 1) Bai. Betidanik geratu izan naiz. Gasteiztarra izanik asko maite ditut festa hauek.
- 2) "Erretreta" eta Armentiarra igotzea gustatzen zait, nahiz eta egungo giroa ezberdina izan.



Pilar. Ileapaintzailea

- 1) Bai, normalki hemen egoten naiz.
- 2) Gustukoen dudana "Euskal dantzak" eta ekintza kulturalak dira.



Alberto

- 1) Bai. Hemen egoten naiz.
- 2) Orokorki dena gustatzen zait; bai giro ona eta baita antolatzen diren ekintzak ere.



Natividad. Etxekoandrea

- 1) Aurreko urteetan geratu izan bagara ere, aurten kanpora joateko asmoa daukagu.
- 2) "Erretreta" da gustukoen dudana.



Nati. Etxekoandrea

- 1) Bai. Txikitatik geratu izan naiz.
- 2) Armentian egoten den giroa, jartzen dituzten postuak eta ospatzen den meza, besteak beste.



Ernesto Garcia. Ikaslea

- 1) Egia esan, kanpotarra naiz. Hala ere, Gasteiza etortzen gara egun hori pasatzera.
- 2) Armentiarako zelaian egoten den giroa.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



etxean jaso nahi dut



Izena

Abizenak

Helbidea

P.K.

Herria

Herrialdea

Bankua/Kutxa

Titularra:

Kontu zk. (20 dijitok)

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

Eta orain zer?

Martxoaren 12a izan da urte hasieratik galdera eta arazo guztien muga. Arabako Diputazioa eta Gasteizko Udalaren aurrekontuekin zer gertatuko zen galdetzean martxoaren 12rako zita, erantzun bakarra; euskalgintza eta kultur-gintza zein gizartegintza arloko dirulaguntzen gaineko erabaki sendo bati buruz itauntzean, berdin. Hauteskunde orokorren emaitza garrantzitsua zen bakegintzan aurre egiteko ahaleginean nondik joko den jakiteko ere. Aldez aurretik, hauteskunde kanpainen zehar hiru ziruditen kontuan hartu beharreko puntu nagusiek. Euskal Herriari zuzenean dago-kionez, EHk proposatu abstentzio aktiboak eta alderdi abertzaleen aurkako erasoek beren helburua lortuko zuten. Estatuari dagokionez, PSOE eta Iuren arteko akordioaren ekarpena zen jakinmin handiena sortzen zuena.



ZULOA HANDITU

Esan ohi da hauteskundeen ondoren alderdi guztiek irabazletzat jotzen dutela euren burua. Oraingo honetan Araban PP eta EAJ dira pozik egoteko arrazoi gehien dutenak.

Pentsatu baino arrakasta handiagoa izan du Estatuan Aznarren alderdiak eta Araban ere aurreikusi baino boto gehiago izan ditu Ramon Rabanerak gidatzen duen taldeak.

PPk Arabako bi ordezkari izan ditu azken lau urteotan Madrilgo Gortetan eta oraingoan Alfonso Alonso hautagai-buru zuen zerrendak ere bi diputatu lortu ditu, baina eskuraturiko boto kopurua izugarri handitu da. Duela lau urte boto-emaileen %27ren konfidantza izan bazuen, martxoaren 12an %40tara iristeko gutxi falta izan du. 1996ko hauteskunde orokorrek in alderatuta, 22.000 boto gehiago irabazi ditu eta iazko foru hauteskundeekin konparatuta, 21.000 pasatxo.

Beraz, Kongresurako ordezkari kopurua gehitu ez badu ere beste alderdiei ateratzen zien zuloa handitzea lortu du. Herrialdeko herrietan ere PP hazi egin den arren, hiriburuko hazkunde ikusgarria izan da aldea zabaltzeko giltza.

BIDE BERETSUA

EAJk ere pozik egoteko arrazoiak ditu. Duela lau urte baino boto gehiago erdetsi ditu, eta iragan urteko emaitzekin konparatuz ez dirudi galera itzelik izan duenik, azken hori zehaztea zailagoa bada ere, Diputaziorako hauteskundeetan EARekin batera aurkeztu zela gogoratu behar baita.

Jelkideen burukideak erabat baikor agertu dira hiritarren erabakia ikustean, baina emaitzek puntu beltza dutela ezin da ukatu: EAJ PPtik gero eta urrunago dago, eta horrek ABBren ordezkariak kezkatu behar ditu derrigor.

EAK ere hiritarren bozketaren azterketa baikorra egin du, baina alderdiak duen beherako joerak jarraitu duela esan beharra dago. Gasteizen zertxobait igarri da EAKo botoen murrizketa, baina Araban nahiko nabarmena izan da.

Abstentzioa eta bere eragina aztertzea da hauteskunde hauetako lanik zailena, adituek diotenez. Batetik, abstentzio guztia ezin zaio EHren deialdiari egotzi, eta bestetik, ezkerreko koalizioaren kontra egiteagatik bozkatu duenik badagoela argi geratu da. Arabari dagokionez, abstentzioa duela lau urte baino handiagoa eta iaz baino txikiagoa izan dela esan behar da. Hego Euskal Herrian %6 hazi da.

Nolabaiteko zenbaketa egiteko 1996an HBk jasotako botoek eta abstentzioak batu-
ta zentsuaren %28 zenbatzen zuten eta
hautesleei egindako azken kontsultan abs-
tentzioa %29,3koa izan da. Hortik aurrera
bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.

PSE ETA EB

PSOEk Estatuan eta Euskal Herri mailan
izan duen porrota da azken hauteskunde-
tako punturik interesgarrienetako bat, batez
ere alderdiaren baitan ekar ditzakeen alda-
ketengatik. Hala eta guztiz ere, Araban
gainbehera ez da horrenbestera izan.
1996. urtearekin konparaturik botoak galdu
badituzte ere, iazko emaitzei begiratuta
hazkunde polita lortu dutela aitortu behar
da.

ETak Gasteizen egin atentatuak, hots,
Fernando Buesa eta haren bizkarzaina zen
Jorge Diez ertzainaren hilketek datuotan
izan duten eraginaz asko hitz egin da, baina
frogatu ezinik hausnarketa hutsean gera-
tzen dira horrelako teoriak.

Duela lau urteko hauteskunde orokorre-
tan PSE-EE eta EBren botoek, batera, PPri
aurrea hartu zioten; azkenengoetan, berriz,
batuketak eginda ere popularrek erdietsi
lehen postutik urrun geratu dira bi alder-
diak.

ALDAKETARIK EZ, MOMENTU

Martxoaren 12a atzean utzita aurrera
begiratu behar da orain, baina ez dirudi
Arabako egoera politikoa bi egunetan alda-
tuko denik. Araban Diputazioaren
Gobernuak aurrekontuak aurrera atera ahal
izateko beste alderdiekin hitz egiten hasiko
dela iragarri badu ere, ez da mugimendu
handirik nabaritu eta adostasunerako bide-
ak ibilbide bakarra duela ematen du gaine-
ra. Estatuan Jose M^a Aznar buru duen alder-
dia eta alderdi abertzaleen arteko harrema-
nak nola dauden ikusita eta EBrekin akor-
diorik lortzeak zail xamarra dirudienez,
PSE-EE da aukera bakarra.

Alderdi alderdi

**Kanpaina eta zenbaketaren ajea pasatuta, emaitzen azterketa egiteko
tenorea iritsi ohi da. PPK, EAJk, EAK eta EHk pozik egoteko arrazoiak
izan ditzaketela ematen du, eta hori da beren buruzagien iritzia ere.
PSEk eta EBk lortu babesak, berriz, hausnarketa garaia iragartzen du.**



EAJ. EAEko hiritarren
babes handiena erdietsi
duen alderdia da EAJ.


Eta horixe da buruzagi jeltkideek inda-
rrez azpimarratu duten leloa. Datorren
legegintzaldira begira, bakea lortzeko
helburuarekin elkarriketa bultzatzen
jarraituko dutela iragarri dute.



PP. Alderdi popularrak
alternantziarako aukera
bezala aurkeztu du bere
burua. Hegoaldeko lau hiri-
buruetan garaile atera direla eta oro har
izan duten hazkunde kontuan hartuta,
erraz asma daiteke erabat pozik hartu
dutela hiritarren erabakia.



EH. Koalizioaren iritziz
azken hauteskundearen emai-
tzek Euskal Herrian
Konstituzioa, Estatutua eta Foru
Hobekuntzaren aldekoak gutxiengoa
direla frogatu dute. Madrilgo
Kongresura joango ez diren arren argi
daukate datozen urteetarako lan plana:
eraikuntza nazionalaren apustua indar-
tzea.



PSOE. PSOEek etxera
begira bainoago beste
alderdien jarrerari errepa-
ratuz du bere azterketa.

Dena dela, Almuniaaren dimisioak age-
rian utzi zuen porrotaren tamaina.
Orain berriztapenari heltzen dioten edo
aurpegi garbiketa hutsa egiten duten
dago ikusteko.



EA. Lehendik ere zeukaten
diputatua mantendu eta lau
herrialdeetan boto kopuru
esanguratsua erdiestea zen

EAREN helburua, eta lortutzat eman
dute. Madrilen bake prozesua eta auto-
gobernuaren alde lan egingo dutela
adierazi dute.



EB. Eskuineko alderdiek
jendea bereganatzen eta
botoa ematera bultzatzen
jakin dutela onartu du EBk,

eta ezkerreko hautesleak, berriz, ez
direla mobilizatu salatu. PPren garaipe-
na Euskal Herriarentzat berri txarra
dela deritzo Madrazoren taldeak



RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

vitrales



**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

DIPUTATU BANAKETA	EAJ	PP	PSOE	EA	IU	Abst.	Beste
Estatua	7	183	125	1	8	% 30	17
Hego Euskal Herria	7	10	6	1		% 34	
EAE	7	7	4	1		% 38	
Araba	1	2	1			% 29	

DIPUTATUAK



• **Alfonso Alonso, PP:** Gasteizko alkatea. Hauteszerrendaren aurkezpena egin zenean beste alderdi politikoetako ordezkariak hemendik aurrera Gasteizek egun erdiko alkatea izango duela salatu zuten. 33 urteko abokatu gasteiztarra Araba eta EAEko PPko zuzendaritza-batzordeko kidea da.



• **Rafael Camara, PP:** 1996an ere Arabako zerrendaren bigarren izena izan zen Rafael Camararena. Lau urte hauetan Kontzertu Ekonomikoa eta "bake fiskala" deitu den horretarako batzordeetan jardun izan du. Bilbotarra da, abokatua eta 35 urte ditu.



• **Juanjo Otxoa de Eribe, EAJ:** Felix Ormazabal en Foru Gobernuako Herrilan, Hirigintza eta Garraio Saileko arduraduna. Zuiako zinegotzi eta alkateorde izandakoa da, eta Gasteizko Legebiltzar-kidea; egun Batzar Nagusietako kidea ere bada. 1942. urtean jaio zen, Mungian.



• **Ramon Jauregui, PSE-EE:** EAEko PSE-EEko idazkari nagusi gisa egin zen ezaguna, baina azken urteetan Madrilen dabil, bere alderdiko politika autonomikoaren arduraduna baita Estatu mailan. Donostiarra da eta 1948an jaio zen.

SENADOREAK

• **Jose Manuel Barquero, PP:** Galiziarra da, 1941ean jaio zen Ourense. Gasteizko zinegotzi eta Gasteizko legebiltzarkidea izandakoa da. Araba eta EAEko PPko zuzendaritza-batzordeko kidea da egun.



• **M^a Eugenia Martin, PP:** 46 urteko emakume gasteiztar honek funtzionari karrera luzea du, beti goi karguetan eta Segurantzaren Sozialaren inguruan. 1996an Arabako Gobernadore Zibila izendatu zuten eta urte bete beranduago Segurantzaren Sozialaren Zuzendaritza hartu zuen.



• **Manuel Maria Uriarte, PP:** Bilbon jaio zen 1932an eta Senaturako hautatzen duten bigarren aldia da. Zaragoza eta Bizkaiko Gobernadore Zibila izandakoa da.



• **Javier Rojo, PSE-EE:** Arabako PSE-EEko militante historikoa da 51 urteko iruinxeme hau. Udalean, Diputazioan eta Madrilgo Kongresuan aritutakoa. Senatuko lana ez zaio arrotza egingo aurreko legegintzaldian ere senadore izan delako.



-Abstentzioaren eboluzioa Araban- 2000. urtea: %29,28 • 1999. urtea: %35,54

BOTOAK ARABAN	2000ko orokorrak	1996ko orokorrak	1999ko foru hauteskundeak
EAJ	35.077	33.761	44.169 (EAJ-EA koalizioa)
PP	66.025	43.731	44.449
PSE-EE	41.168	42.561	26.073
HB/EH	-----	12.552	21.144
IU-EB	9.489	9.364	7.305
EA	7.970	9.364	44.169 (EAJ-EA koalizioa)

LIBURUDENDA

axular



Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

**MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK**



zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Arabako bertsozaleen festa nagusia

28 bertsolarik hartu dute parte
Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama XI. Bertso Sarian

Lehenengo bost saioak jokatu final laurdenak eta final erdiak-apirilaren 15ean Floridako Kultur Etxean egingo den ekitaldian erabakiko da zein den Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama XI. Bertso Sariaren irabazlea, edo bestela esanda, Arabako txapeladuna. Asier Otamendik iaz lortu txapela defendatuko du esku hartzen duten bertsolari guztien aurrean.

Bertso saioaren antolatzaileek azaldu dutenez, izen ezagunen ondoan berriak ere entzun ahal izango dira aurten. Bestetik, 11 urte hauetan zehar hutsik egin gabe kantatu duten batzuek jendareko saioari agur esatea erabaki dute -Pablo Pagegi, besteak beste-. Partehartzaile gehienak Gasteizko Bertso Eskolan trebatutako DBHko ikasleak dira, nahiz eta unibertsitate inguruko hainbat lagunek ere izena eman duten.

KANPORAKETAK

Martxoaren 16, 18 eta 24an Gasteiz, Araia eta Izarran jokaturako 22 lagunek -zortzina bertsolari lehen bietan, sei azkenengoa- hiru final laurdenekin hasi zen Bertso Saria. 22 bertsolari horien artean puntu gehien lortutakoek (hasiera batean sei izango ziren, azkenean hamar, berdinketa egon zelako) finalerdietan kantatu behar izan zuten, aurretik sailkatutakoekin (iazko finalistak) batera, Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean Audio eta Aramaion ospatu final aurrekoetan -zortzina-ko taldeak.

Finalerdietarako aurretik sailkatutakoak Zigor Enbeita, Nagore Soroa, Rikardo Gonzalez de



Durana, Oihane Perea, Asier Iriondo eta Asier Otamendi dira.

Finala -sei bertsolari- arestian esan legez, Gasteizko Florida Kultur Etxean jokatu da, apirilaren 15ean arratsaldeko 19etan. Iaz bezala bi zati izango ditu saioak. Lehenengo zatiko ariketetan puntu gehien lortzen duten bi bertsolariak aurrez aurre arituko dira txapelaren bila.

BERTSOZALETASUNA HEDATU

Aurreko urteetan bezala Arabako herrietara eram nahi izan da herrialdeko bertso jai nagusia, eta aipatzekoa da Araia Prudentzio Deunaren kanporaketa bat hartu duela lehen aldiz aurten. Izan ere, txapelketaren antolatzaileek helburua bertsolaritza eta bertsozaleatasuna Araban zehar zabaldu eta garatea dela adierazi dute, eta horregatik urtez urte jende gehiagorengana iristen saiatuko direla.

Gora egin dute bertsolaritzak eta bertsozaleatasunak Araban azken urteetan, baina bertsoa lagun gutxiren arteko gauza zeneko giro atsegina gorde nahi du Gasteizko Bertso Eskolak hazte prozesu horretan murgilduta ere. Orain arte saioek izan duten lagun arteko parranda kutsua mantentzeko asmoa dute arabar bertsolariek, horregatik jaez gozatzeko gonbitea egiten diete entzuleei, eta baita kantari arituko direnei ere.



Beitto Martinez, Naroa Sasieta eta Iker Zaldia.

Finalerdietarako Sailkatuak:

Zigor Enbeita, Nagore Soroa, Rikardo Gonzalez de Durana, Oihane Perea, Asier Iriondo, Asier Otamendi (iazko finalistak), Juan M^a Juaristi, Irati Anda, Egoitz Unamuno, Beitto Martinez, Irati Lotina, Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Eñaut Frantzesena, Maiteder Sasieta eta Ruben Sanchez (ordezkoa Oihane Perea).




GEU ELKARTEA. "ZURE HELBIDEA EUSKARAZ" KANPAINA

Gasteizko euskal kale izendegiaren erabilera bermatzeko hitzarmenari bai

Iazko abenduan aldizkarian iragarritako Gasteizko euskal kale izendegia erabiltzeko kanpainaren fruituak ari da pixkanaka jasotzen Geu Elkartea. Hainbat erakunde, lantoki eta talderi beharrezko informazioa eta izendegi osoa duen diskete bana igorri zaie dagoeneko, hitzarmen orriarekin batera, zeinaren bidez erakunde bakoitzak ekimenarekiko atxikimendua adieraziko duen; hots, kale izendegi berriaren erabilerarako konpromisoa. Ugariak izan dira bidalitako gutunak: Kutxak, elkarteak, euskaltegiak, komunikabideak, ikastetxeak eta unibertsitatea, alderdi politikoak eta sindikatuak... Martxoan barrena zenbait atxikimendu jaso dira, eta apirilean zehar gehiago jasotzea espero dute elkarteak.

Beraz, "Zure helbidea euskaraz" ekimenarekin bat egin nahi baduzue, deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira (Edurne) eta behar beste informazio eta argibide izango duzue.



Cutun hau igorleari itzuli zioten, "No existe esta calle"

gutunazalean idatziz. Hau dugu kanpaina honen helburuetako bat, halakoak ez gertatzea!

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

Aiztogile (KUTXA) kalean

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90



Berdearen eguna

Estatu Batuetan munduko bazter guztietako jendea aurki dezakezu. Orain amerikarrak deitzen diren horiek duela mende batzuk Europako punta guztietatik etorri ziren: Erresuma Batua, Irlanda, Alemania, Polonia, Italia, Norvegia eta abar. Esklabotasunak kolore pixka bat eman zion aurreko zuritasunari. Joan berria den mendean Asia eta Latinoamerikatik kolore gehiago etorri zaigu. Egungo amerikarrak, beraz, William Douglasek esan bezala 'gidoieta' jendea dira, hau da, afrikar-amerikar, italiar-amerikar, mexikar-amerikar... Guri nahiko arraroa egiten zaigun kontzeptua, batez ere 'euskalduna eta kitto' izan nahi duen herri baten zat... Amerikarren kasuan, ordea, gidoi horrek norberaren jaioterriaren harrotasuna azpimarratzen du. Eta nor harroago irlandar-amerikarrak baino...

XIX eta XX. mendeetan irlandar asko etorri ziren Estatu Batuetara lan egitera. Herri osoan kokatu ziren baina kopuru handiena Boston, New York eta Chicagon gelditu zen. Noski, Irlandatik etorritakoak orain amerikarrak dira, baina bada urtean behin egun bat irlandarra nor den esatea oso erraza dena:

Martxoaren 17a, St. Patrick-en eguna. Festa hau Irlandan baino gehiago Estatu Batuetan ospatzen da lan eguna izan arren. Honek azaltzen du amerikarren izaera: denak 'handiagoa' izan behar du hemen.

Ospakizunean Euskal Herriko festetako protagonista berberak dauzkagu: edaria, janaria, jantziak, desfileak... Hitz gutxitan: parranda galanta. Baina, kasu honetan puntu berezi batekin. Jakingo duzue, berdea da Irlandako kolorea, beraz, St. Patrick-en egunean denak berdea izan behar du. Zerbait berde ez badaramazu soinean, jendeak zimiko egiten dizu zerbait berde jantzi arte. Eta irlandar-amerikar on bat izan nahi baduzu zure inguruan dagoen guztia berde bilakatuko duzu: tabernetan garagardoari kolorentea botatzen diote berde izateko. Ez da oso erakargarria, benetan. Nahiko erradikala bazara janariari ere kolorentea botako diozu, baina hori ez da garagardoa bezain ospetsua. Janaria bera ez da hain berezia, baina derrigorrezkoak dira eguna ondo ospatzeko aza eta 'corned beef' edo zezina, Irlandan gure odolkien paper berbera egiten duen haragi gatzartua. Badaude ere urrutia joaten direnak: Rolla-n, esate-

rako, kale nagusia berdez margotzen dute (argazkia) eta Chicagon ibai.

Edaria eta janariaz aparte, desfilea da atentzio handien ematen duen gertaera. Hiri nagusietan desfile handia egiten dute eta hiriko talde irlandarrak beren jantzi tradizionalekin



Rolla

ateratzen dira. Azken urteotan istiluak izan dira New Yorkeko desfilean gay/lesbianen talde batek parte hartu nahi zuela-eta. Aurten badirudi akordioa lortu dutela eta talde hau berriro aterako da.

Dena den, ospakizunak ezin dira bukatu beste gauzarik egin gabe. Euskal Herrian gertatzen den modura, janari eta edari ugari elkartzen direnean hurrengo pausoa abestea edo bertsoak botatzea da. Abesti irlandarrak abesteaz gain, 'limerick'ak egunaren osagarri inportanteak dira. 'Limerick'ak bost lerroko bertso iragarriak dira. Ingelesezt idatzita dauden arren, adibide moduan, hona hemen lehenengo euskal 'limerika':

Bazen behin Groseko neska
bere herriko berrien eska
hura zen urduri
baita pixkat bihurri
hau Markesa de Pitxurri



Testua eta argazkiak:
Maite Nuñez-Betelu



St. Louis

KOZKORTUZ

GLOBOFLEXIA



➤ **Helburuak:** ✓ Puxiken erabilpena landu.

✓ korapiloen bitartez irudi desberdinak sortu. ✓ Eta noski ... ONDO PASATU il!!!

➤ **Zailtasuna:** 8 urtetik aurrera.



LOREA EGITEKO PAUSOAK:

- Bi puxika behar dira. Bat guztiz puztua eta bestea ez guztiz.
- Guztiz puztua dagoen puxikaren bi muturrak lotu.

- Muturretik heldu, jaitsi korapiloa erdira (elkartuz) eta ondoren buelta eman.
- Berriz ere bi muturrak jaitsi eta elkartu eta buelta eman. Horrela lortuko ditugu lorearen petaloak.
- Lorearen zuztarra egiteko beste puxika hartu

eta "S" itxura eman ondoren buelta eman.

- Zustarra lorearen petaloetara lotu eta... Oparitxo bat egiteko ideia originala!!!



OLAGARROA EGITEKO PAUSOAK:

- Lau puxika hartu, bata bestearen ondoan jarri eta erditik helduz korapiloa egin, buelta eman.
- Pulpoaren burua egiteko, puxika normala puztu eta nahi duzun aurpegia margotu.
- Lotu burua gorputzari eta... badaukagu gure olagarrotxoak;



Dibertigarria, ezta?



PLISTI-PLASTA

ASTI LIBREA EUSKARAZ!!!

TELEFONOA: 656739030


GOZA GAITEZEN OPORREZ



SAGARRAREN ZETARRA

Angel Isasi
EKILORE
GERO EUSKAL LIBURUAK-99
8-10 urtetik aurrera


Manexek eta Maddik honen baserriko sagar baten barrutik ateratzen den zarata arraroa entzuten dute... Zer ote da? Misterio hau argitzeko pertsonaje berezien laguntza izango dute.



MUNDUKO IPUIN LITERARIOAK

NOSKI! SAILA
GERO EUSKAL LIBURUAK-99

12 urtetik aurrera
Sei kontakizun labur hauetan, Mark Twain eta Oscar Wilde bezalako idazleen istorioekin gozatzeko aukera daukagu. Gainera, azken orrialdeetan la liburuska bat dago lau ataletan banatua: I. Idazleak eta beren idazlanak, II. Liburuak ulertzeko, III. Liburuaz hitz egiteko eta IV. Liburuaz idazteko.



IHOLDI

Mariasun Landa/Asun Balzola (marrazkiak)
Siberia Treneko Ipuinak
Erein-99

8-88 urte bitartekoentzat
Kapela urdina, autobus zaharra, harra eta sagarra, kometa, bufanda... Haurren munduko istorioak marrazki bitxi eta xumeen ondoan.



PELOS POR TODAS PARTES o la hormona alborotada

Babette Cole
Ediciones Destino-99
0-7 urte

Noiz hazi eta izango ote naiz handia benetan? Galdera honek kezka ugari sortarazten ditu umeen artean. Ipuin honetan era ulergarri eta barregarri batean azaldu nahi zaie umeei zer-nolako aldaketak gertatzen diren gure gorputzean hazten garen bitartean.

IRAKURRIZ!!!

Testua: Itziar Uriarte

axular

LIBURUDENDAREN ESKUTIK



BRUNO Y LA CASA DEL ESPEJO

Ricardo Gomez

ALFAGUARA JUVENIL-2000

12 urtetik aurrera

Brunori hiri txiki bateko etxe huts batek sartzeko irrika sortzen dio. Egun batean baldurrik gabe etxean sartzen da eta liburu bat lapurtzen du.

Handik aurrera era askotako gertakariei aurre egin beharko die...



XIPRI SUGEA eta bere aho erraldoia

KRISKI-KRASKA liburu jostariak
TTARTALO-99

6-7 urte

Xipri sugea oso gosetuta esnatu da bere loalditik. Zer aurkituko du bere gosea asetzeko? KRISKI-KRASKA!

Lehiaketa

txiki park

SARIA: Txiki Park-erako 2 sarrera

Martxoko erantzuna: "BAREA" (A ze pareta, karakola eta bareta)

Irabazlea: OIHANA JUARISTI • ZORIONAK!

Apirileko galdera:

Zer jan ohi da Prudentzio Deunaren egunean?
Erantzuna marraz dezakezue!!! Zorte on!

Bidali erantzuna lehenbailehen...gure helbidera (4. orrialdean) Izena eta Telefonoa zehaztuz

Domingo Beltran kalea, 53 - 01012 Gasteiz - Tnoa. 945 20 00 02



Ez gehiago
itxaron,
egin zaitez
gure klubeko
bazkide

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

ITURRIETA

Sagardotegia



**2000. urtean, zer?
Sagardo berria, jakina.**

**Arraga auzoa.
tfnoa: 945 44 53 85
ARAMAIO**

adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

zientzia eta teknika, zugandik gertu

Ezin aharrausi egiteari utzi

Nahita ere, askotan ezinezkoa izaten da aharrausi egiteari uztea. Gainera, behin baino gehiagotan gertatu ohi da toki eta unerik eze-gokienean aharrausiaren erasoa; eta hori ez da ona izaten, logurearen edo asperduraren seinale-tzat hartzen baita. Baina, zergatik egiten da aharrausi? Eta batek eginda-koan, ingurukoek ere zergatik egiten dute?

Arnasketa gure gorputzak berez egiten duen prozesuetariko bat da, automatikoki eta inkonszienteki. Gizakia arnasketaren erritmoa kontrolatzeko gai den arren, ezin du esna dagoen denbora guztia horretan eman. Lo egitean, adibidez, gizakiak ez daki konszienteki zertan ari den. Gauza bera gertatzen da bihotzak egiten duen odol-ponpa-tze lanarekin. Bizi ahal izateko etenik gabeko jarduera behar duten prozesu guztiak, burmuinaren gune jakinek kontrolatzen dituzte.

Arnasketa bizitzarako ezinbesteko prozesua da, hori gabe gizakia berehala hilko bailitzateke, segundo gutxitan. Giza gorputzeko zelulek oxigenoa behar-beharrezko dute, odolaren bidez iristen zaizkien elikagai guztiak "erre" ahal izateko. Energia lortzeak, hala ere, hondakina sortzea dakar, kasu honetan karbono dioxidoa; eta hondakin hori kanporatu egin behar da. Horrela, arnasketa-prozesuan oxigenoa ateratzen da airetik, odolerraino eramaten da eta, aldi berean, karbono dioxidoa jaso eta kanporatu egiten da. Aipatutako arnasketa-prozesua birikek gauzatzen dute. Aireak birikak betetzen ditu, eta hauek oxigenoari odolera iristen uzten diote. Aire hartu eta gero, bota egiten da, eta botatzean birikek odol-eko karbono dioxidoa aterata eta kanporatu egiten dute.

Nahiz eta arnasketa prozesu automatikoa izan, batzuetan erregulazio-lana ere egin behar izaten da. Nekea, logurea, edo asperdura sentitzean gorputzak mantsoago hartzen du arnasa. Horrelakoetan odolera karbo-

no dioxido gehiago eta oxigeno gutxiago iristen da. Lo egitean arnasketa ere baretu egiten da, baina gorputzaren jarduera hain txikia denez, oxigenoaren kontsumoa eta karbono dioxidoaren produkzioa jaitsi egiten dira. Beste ugaztunek ere izaten dute bat-bateko gehiegizko karbono dioxido eta oxigeno falta odolean. Eurek zein gizakiek, badute arazoari aurre egiteko konponbide eraginkorra: aharrausi egitea.



NOLA EGITEN DA AHARRAUSI?



Aharrausi egiteko ez dago ikasi beharrik. Berez sortzen da. Odolaren jarioan gehiegizko karbono dioxidoa dagoela somatzean, burmuinak seinalea edo agindua bidaltzen die birikei. Horri erantzunez, birikek normalean baino arnas hartze sakonagoa egiten dute. Horrela, beharrezkoa den oxigenoa hartu ahal izaten dute eta pila-tzen ari zen gehiegizko karbono dioxidoa kanporatu. Beraz, aharrausi egitea beharbada estetikoki zatarra eta sozialki gaizki ikusia

izango da gure kulturaren, baina animaliak eta gizakiek behar-beharrezko dute. Horrelakoetan masailazurren mugimenduari ezin eutsi izaten zaie, aurpegiko gihar ugari uzurtu egiten dira, begiak gorritu, eta negar-malkoren bat edo beste ere aterata ohi da.

Jakina, badira aharrausi egiteari buruzko teoria gehiago. Batzuen ustez aharrausi egitea gorputzak burmuineko eta bizkarrezur-muineko fluidoaren presioa jaisteko erabiltzen du; beste batzuek diote barruko airearen presioa orekatzeko funtzioa duela —nork ez du noiz-bait sentitu belarrietako zuloak irekitzen direla?—. Ikerketa batzuek diotenez, umeak amaren sabelean daudela aharrausi egiten dute, nahiz eta ez duten arnasteko oxigenorik; multiesklerosia dutenek ere sarri egiten dute aharrausi. Kontua da oraindik ez dagoela segurtasun handirik aharrausi egitearen arrazoiak, eta badagoela zer ikerturik.

Aharrasien kontuan, hala ere, harrigarria ez da gertatzen den modua edo aharrasiek izan dezaketen funtzioa, hori baino harrigarriagoa da aharrasien sozializa-tzeko joera. Hau da, batek eginez gero, ingurukoek ere egiten dute. Hala ere, zientzialari asko ez dago ados. Aharrausi egitea kutsatzen den zerbait balitz, aharrasien ezingo lirateke sekula saihestu. Eta hori ez da egia, nekez, baina kontrola daitezke eta. Aharrausi egiteko ez dago egin behar dela pentsatu beharrik, baina pentsatuta ere egin daiteke, nahi izatea nahikoa izan daiteke. Izan ere, arnasketa burezurren behealdean —muinean— kokatutako nerbio-sistema bereizi baten ardura da. Gune horrek gorputzeko berezko jardueren ardura du, baina kortex-arekin ere badu lotura, burmuineko zati konszientearekin alegia. Horregatik, zati konsziente horrek ere agindua bidal diezaiokete arnasketa-sistemari, eta arnasketa kontrolatu egin daiteke. Gehienetan aharrausi egitea borondatearen aurkako zerbait denez —ia konturatzeke egiten dena— egitea ere bultzatzen daiteke, pentsatze hutsarekin edo beste batzuek nola egiten duten ikuste hutsarekin.

"Desalojo bat, Okupazio bat"



Okupazioa gero eta garrantzi handiagoa izaten ari da Gasteizen. Iaz Legutio izan zen albiste, bertako etxe bat okupatu eta han urtebete pasa bai-tzuten gazte batzuek, aterarazi zituzten arte.

Baina 2000. urtea ez da atzean geratu okupazioari dagokionean. Izan ere, urtea hasi zenetik bi okupazio izan dira Gasteizen. Bata Manuel Iradier kaleko etxe batean, eta bestea Aranbizkarra auzoko Etxezarra izeneko eraikinean. Gure hirian okupazioa inoiz baino indartsuago dagoen isla?


Legutioko "Bandera Negra" utziarazi zutenean gazte batzuen ametsa bukatu zen, baina ez, ordea, okupatzeko nahia eta gogoia. Okupekin hitz egin genuenean esan ziguten legez, edozein unetan beste okupazio bat gerta zitekeen Gasteizen. Eta baten ezean bi okupazio izan dira urtarilaz geroztik gure hirian. Bi okupazioek argi asko erakutsi dute etxebizitzaren arazoa pil-pilean dagoela Gasteizen, bai eta horri erantzuna emateko jendea ugaria dela ere.

Manuel Iradierreko okupa

Gabonak amaitzeaz zeudenean burutu zen urte berriko lehen okupazioa. Hamalau gazte Manuel Iradier kalean hutsik zegoen -eta dagoen- jauregitxo batean sartu ziren urtarilaren 4an. Ez zuten asko iraun bertan, 6an aterarazi baitzituen Ertzaintzak. Baina euren aldarrikapenak agerian uzteko nahikoa denbora izan zen. "Legutioko desalojoari erantzun beharra zegoen eta okupazio hori izan zen gure erantzun eraginkorra", azaldu digu okupa batek. Okupatu zuten aurreneko egunetik poliziaren kontrola handia izan zen oso, izan ere, udaltzainek okupak etxean sartzen ikusi zituztenean horren berri eman zuten segituan. Urtarilaren 5ean bizilagun batek ohartarazi zien okupek ertzainek alboko etxe baten ganbarako giltzak zituztela, eta bertan zaintza postu bat ezarri zutela okupak kontrolatzeko asmoz. Era berean, ateraraztea egun horretan bertan egingo zela entzun ahal izan zuen bizilagunak eta hala jaki-



izozkiak



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ



Errege Atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004



OKUPATZEA "DELITUA" DA

Okupatzea "delitua" da. Argi dago. Bestela okupei galdegin baino ez zaie egin behar konturatzeko okupazio batek zeintzuk ondorio legalak ekar ditzakeen. Manuel Iradier kaleko okupazioa zela eta, bertan egon ziren hamalu gazteri usurpazio delitua leporatu zieten. Azkenean, zorionez, beraien aurka zituzten kargu guztiak bertan behera utzi ditu epaileak, hortaz, okupazio horrengatik "garbi" daude okupak.

Etxezarra-ko ekintzagatik, ordea, oraindik ez dakite zer gertatu-ko den. Delitu bera egotziko dietela uste dute, izan ere, gertaera huragatik txostenak ei daude eta dilijentziak ireki diezazkiekete okupei.

narazi gazte okupei. Hori jakin bezain pronto 50 bat pertsona bildu zen etxean ateraraztearen kontrako erresistentzia antolatze-ko. Baina desalojoa gau horretan izan beharrean hurrengo goi-zean egin zen, okupak oraindik lo zirenean eta beste batzuk etxe-rik at zeudenean. Okupa batek azaltzen digunez, "goizeko bede-ratziak aldera, 30-40 ertzain etxean sartu ziren. Lurrera bota, kol-peak jaso... eta azkenean etxetik bota gintuzten". Ondoren, irte-naraztearen kontrako asanblada bat egin zen Gaztetxean, kon-tzentrazio bat etxe aurrean, eta baita manifestazio bat ere. Baina erantzuna ez zen horretan soilik geratu...

ETXEZARRA, OIHARTZUN HANDIKO OKUPAZIOA

Okupak konturatu ziren okupazio horrekin nolabaiteko mugi-mendua sortu zela Gasteizen eta hori aprobetxatu beharra zego-ela okupazioari indar handiagoa emateko. Horrela, hilabete eta gero Aranbizkarra auzoko etxe mitiko batean sartzea otu zi-tzaizen: Etxezarra-n. Eta zergatik Etxezarra-n? Bada, bi funtsezko arrazoiengatik: "batetik, etxea oso ezaguna delako, Napoleon bertan bizi izan baitzen, urte asko zeramatzan hutsik, auzokide-ak askotan kexatzen ziren erabilerarik ematen ez zitzaiolako...; eta bestetik, Udalarena zelako, alegia, etxebizitzaren alorrean gehien espekulatzen duenarena zelako", dio okupa batek. Otsailaren 18an gazte talde bat Etxezarra-ra sartu zen. Okupazioak hamar egun iraun zuen, eta bizilagunengandik jaso zuten berotasuna itzela izan zen okupek adierazi digutenez.

"Okupazioek argi asko erakutsi dute etxebizi-tzaren arazoa pil-pilean dagoela Gasteizen"

"Bizilagunengandik jaso zuten berotasuna itzela izan zen"

Seiehun sinadura baino gehiago bildu zituzten elkartasuna adie-rariz. Okupazioak iraun zuen aste t'erdian auzokideen partehar-tzea bultzatzeko ekintza desberdinak egin zituzten: malabare tai-lerrak, haurrentzako marrazki lehiaketak, jolasak eta abar.

Bien bitartean, legalki ere mugitu ziren. Izan ere, okupek eskutitz bat bidali zioten Udalari bilera bat eskatuz. Era horretan euren elkarrizketarako asmoa agerian utzi zuten, eta horrekin batera etxea zentru sozial bat bilakatzeko nahia ere helarazi zioten. Udalaren erantzuna, berriz, desalojoa. Otsailaren 28an gertatu zen. Udaltzaingoa eta Ertzaintza agertu bezain pronto okupak teilatura igo ziren, eta atzetik udaltzainak joan zitzaizkien. Azkenean, akordio batera heldu ziren bi aldeak: ez zen atxiloke-ta eta salaketarik egongo okupen aurka, baldin eta hauek etxetik joaten baziren. Eta halaxe egin zuten, beraien irudiko etxea uztea "borroka eta eraginkortasunaren aldetik hobea" baitzen.

Eta orain zer egingo duzue? galdegiten diegu okupei, "gure poli-tika argi asko dago: desalojo bat, okupazio bat", dioskute. Laburra eta argia. Hurrengo arte, beraz!!





Okupa!
arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

**Ka
La
MUA**
TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5
Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako...
behar duzun
guztia

PAPERTEGI TEKNIKO

Euskaldunak direlako eta euskarak eguneroko bizitzan, normalkuntzaren bidean... aurrera egin dezan Kepa Mendiak nahiz Jose Luis Garmendiak beraien komertzioetan ere euskaraz dihardute. "Garbi daukat bere normalizaziorako euskara merkataritzan txertatzea oso inportantea dela, eta datozen urteetan hori argi eta garbi ikusiko dugu", dio Kepak. Bi lagun hauen modura gero eta gehiago dira Gasteizen zerbitzua euskaraz eskaintzen duten dendak...



EUSKARA suspertuz GASTEIZKO kaleetan


MENDIA OPTIKA

- Familiatik datorkio Kepa Mendia Landari optikaren negozioa. Bere aitaren birraitonak 1866az geroztik zabaldu zuen komertzioaren jabe da Kepa, belaunaldiz belaunaldi aurrera egin duen Mendia Optika egun bere esku baitago. 48 urteko gasteiztar honen esanetan denda bere gain hartzeko ez zuen erabakirik hartu behar izan: *"Etxean arreba eta biok ginen, arrebari ez zaio hau sekula interesatu eta hortaz niri tokatu zitzaidan"*. *"Garai horretan euskararen munduan oso sartua nengoen, eta nahiz eta hasieran euskara nahiz optikako lana batera egiten saiatu nintzen gerora ezina gertatu zitzaidan"*

- Optika ikasketak burutuzera Madrilera joan behar izan zuen Kepak, bertan optikaz gain euskara ere ikasi zuela: *"Nahiz eta orain arraroa suerta daitekeen nik euskara Madrilen ikasi nuen, eta nirekin batera beste askok ere bai, bertan euskaldun asko baitzeuden"*, dio Mendiak. *"Giro euskaldun bizi ginen, izan ere, kanpoan etxeko mina sentitzen da"*.

- Mendia Optika etxea aspaldi hasi zen publikitatea euskaraz egiten, *"euskaraz egiten den publikitateak euskaldunengan erakargarritasun handia dauka eta"*. Gauzak horrela, jabearen iritziz, gero eta euskaldun gehiago pasatzen dira dendatik: *"Euskaldunok poliki-poliki euskaraz hitz egiteko kontzientzia hartuko dugu eta gure hizkuntza merkataritzan, ekonomia munduan, eta edonon erabiliko dugu"*.

"Euskaldunok poliki-poliki euskaraz hitz egiteko kontzientzia hartuko dugu eta gure hizkuntza merkataritzan, ekonomia munduan, eta edonon erabiliko dugu" (Kepa Mendia)



Euskara eremu orotara hedatu asmoz Kepak eta Jose Luisek Geu-rekin bat egin dute euskara hutsezko hilabetekariaren egitasmoa errealitate bilakatze-ko laguntza emanez hasiera-hasieratik. Izan ere, ezinbesteko diru-iturria den publizitateari esker, egun Gasteiz eta Araba osoan euskara hutsez argitara-tzen den aldizkari bakarra dugu Geu, eta urte askotarako!!.

GARMENDIA HARATEGIA

- Jose Luis Garmendia gipuzkoarra orain dela hogeita hiru urte Gasteizen bizi da, *“nahiz eta aste-bururo herrira noan, han familia osoa baitaukat”*. Gabiriatik etorritako 39 urteko harakin honek 14 urte darama lanean Arana auzoan bere izenean irekitako harategian, Garmendia Harategia, alegia.

• Geu aldizkaria ezagutu eta bere hastapenetatik euskaraz publizitatea ipintzea pentsatu zuela aipa-tzen du Jose Luisek: *“Euskalduna naizen heinean bertan publizitatea sartzea erabaki nuen”*.

• Jose Luisen ustez nahiz eta dendetan euskaraz gutxi hitz egin, gero eta jende gehiagok egiten du: *“Auzokideek ezagutzen naute eta, beraz, euskalduna den bezero kopuru bat badago”*. Gasteizen 23 urteren buruan euskaldunen kopuruak, bera heldu zenekoarekin alderatuz, gora



egin duela azpimarratzen du Garmendiak, “*auzo-an batik bat gazteria mintzatzen da, eta honi esker euskara gehiago entzun daiteke orain*”.

"Gasteizen euskara gehiago entzun daiteke orain"
(Jose Luis Garmendia)


CEGASA
 INTERNATIONAL
ALCALINA



HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 · GASTEIZ

KARMELE JAIO

Berdintasunerako kontaketa laburren 4. edizioko irabazlea euskarazko alorrean

"Jendeari begira sekulako pelikulak egiten ditut"



Kazetari lanak dakarren lan ordutegi sakrifikatuagatik Karmelek literaturarekiko zaletasunarekin nahi beste disfrutatzen du premiarik ez du izan: "Bazen denbora ez nuela ezer idazten, lehen 23 urte nituenean idatzitako ipuinak eta idatziak lebiaketetara aurkezten nituen... Lankide batek komentatu zidan beti egunkarian idazten dugula baina inoiz ez garela horrelakoetara aurkezten..., 'pikatu' ginen eta animatu nintzen". Animatu, baita irabazi ere!, Karmelek Berdintasunaren Zerbitzuak antolatu kontaketa laburren 4. edizioaren saria eskuratu baitu euskarazko ereduan. "Egunero erdaraz idazten dudan arren, ipuinak euskaraz idazteko joera izan dut beti, gaztelaniaz idazten saiatzen banaiz ere galduta bezala sentitzen naiz".

Bikotea

Jaiok istorioak sortzeko ez duela inoiz arazorik izan aitortzen du: "Askotan gertatzen zait nonbaitera begira gelditzen naizela eta ikusten ari naizen egoeraren inguruan pasadizo bat idazten dudala; gainera, pentsatzen dut asmatzen dudana errealitatetik oso urrun ez dagoela, sekulako pelikulak egiten ditut nire buruan". Gauzak horrela, nahiz eta hasiera batean zer idatzi bururatu ez, laster bikote diren neska eta mutil baten arteko harremana hartu zuen abiapuntutzat Karmelek. Taberna batean neska batek bertan dagoen bikotearen egoera deskribatzen du. Neskak biko-



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK





• Gasteizen orain dela 30 urte jaio bazen ere Karmele Jaiok familia osoa lekeitiarra duela azpimarratzen du, hots, nongoa den galdetzean "erdi-purdi" erantzuten du barrezka.

• Olabide ikastolan ikasi eta Leioan kazetaritza ikasketak gauzatu zituen. Egin Irratian 5-6 urtez egon ondoren Egin eta Euskaldunon Egunkarian ere aritu zen; egun, berriz, Garan dihardu kultura eta kirol sailetan, azken hone-tan Baskoniaren gora-beheren berri ematen duela.

• Kazetari lana eta 'biolentzia hedabideetan' izenburua duen bere tesi doktorala tartekatzen saiatzen da, hala ere, lanak eskatzen duen denbora dela-eta tesia erdi ahaztuta duela aitortzen du. Haatik, noizbait bukatze-ko itxaropenarekin ari da lanean Karmele "oraindik amaitzeko bost urteko epea baitut".

"Egunero erdaraz idazten dudan arren, ipuinak euskaraz idazteko joera izan dut beti"

"Amets bat litzateke literatura munduan nire burua kokatu ahal izatea"

tea behatzen du, bikoteak elkarri ez dio ezer esaten. Neskak pentsatzen du auskalo zenbat denbora elkarrekin ibili ondoren bata bestearekin nazkatuta daudela, eta hainbat gogoeta egiten du haien inguruan. Orduan, neska jabetzen da bera ere bere bikotearekin egoera berdinarean aurrean dagoela.

Jaiok 'moraleja' egitea helburutzat ez bazuen ere, azkenean antzerako zerbait irakur daiteke lerro artean. "Egia da zentzu horren isla aurki dezakegula bertan; izan ere, bate-tik, nolabait bikotea egunero ez baduzu zaintzen barreman hori galduz doa; bestetik, oro har beste-engan akatsak ikusten ditugu eta ez gara kontura-tzen horiek ere gure akats berberak direla". Idazle gazteak pentsatzen duenez, bizitzaren momentu batean edo bestean "denok jabe-tzen gara horrelako egoera baten aurrean gaudela". Ondorioz, sari honekin Karmele literatur mundutik gertuago dagoela esan dezake-gu, bere idazteko zaletasunak indarra bereganatu du ordutik, eta jada beste ipuin bat idazten hasi da: "Amets bat litzate-ke literatura munduan nire burua kokatu ahal iza-tea; hala eta guztiz ere, lau urtez ezer idatzi egon ondoren honek nire burua dinamizatzeko balio izan dit".

- **LIBURUREN BAT?** *Gauetan, batez ere, ohean sartuta nagoenan, irakurtzen dut. Orain Carmen Martin Gaiteren "Lo raro es vivir" irakurtzen ari naiz.*
- **IDAZLE BATEN IZENA?** *Asko dago, baina... Julio Llamazares.*
- **Kazetaritza edo literatura?**... *Kazetaritza lanbide bezala eta literatura zaletasun bezala.*
- **KAZETARI BATEN IZENA?** *Kazetaritza ez daukat idolorik.*
- **ZALETASUNIK?** *Idazteaz gain, asko gustatzen zait lagunekin ibiltzea.*
- **PARRANDA, ALEGIA?** *Afariak prestatzea eta horrelakoak..., beno, bai, parranda.*
- **GASTEIZEN AUKERA KULTURALIK BA AL DAGO?** *Segun eta zertara-ko, adibidez kontzertuei dagokienez, gero eta eskaintza han-diagoa dago, ez instituzioen aldetik baina bai, berriz, ekimen pribatuaren eskuetatik.*
- **PRENTSA, IRRATIA EDO TELEBISTA?** *ETA ZERTARAKO?* *Telebistan ez naiz sekula ibili, irradian bai baina prentsa nahiago dut; izan ere, gaietan gehiago sakontzeko aukera ematen du.*
- **ETORKIZUNERAKO EGITASMORIK?** *Nire lepo gainean pisu gehie-gi daukan tesi hau bukatzea.*
- **INSPIRAZIOA NON AURKITZEN DUZU?** *Beharbada kalean ikusten ditudan gauzetan; lehen aipatu dudan moduan egoerak eta pertsonak oro har behatzea gustatzen zait, eta kalean istorio pilo-a dago.*
- **GAZTELERAZKO SARIA IRABAZI DUEN IDATZIA IRAKURRI AL DUZU?** *Ez, irakurtzeko aukerarik ez digutelako eman, baina posible denean irakurtzeko asmoa daukat.*



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiaiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52



AMILAMIA

arropa eta osagarriak

Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



herririk herri, hizkuntzaz hizkuntza

KULTURA ETA TRADIZIOA

Saharar herriaren nortasun ezaugarri (I)

MENDEBALDEKO SAHARA, ESPAINIAREN KOLONIA IZAN ZEN HERRIALDE HORI, ETIKA MUSULMAN ARABIA-RRERKO GIZARTEA DA ETA AFRIKAN SUSTRAIAK ONDO ERROTUTA DITU. BESTE HAINBAT HERRIALDE ARABIA-RRERK EZ BEZALA, KULTURA BEREZIA DU ETA KULTURA HONETAKO HERRIEN ERREALITATEA OSORIK ADIERAZTEN DU.

HERRI HONI OINARRI-OINARRIZKOA IRUDITZEN ZAIO GIZARTE BAKOITZEAN NORBERE SUSTRAIETATIK SORTU ETA GIZARTEAREN BILAKAE-AREN BIDEZ GARATUTAKO GIZA BALIOAK ETA BALIO IZPIRITUALAK IZATEA, BALIO HORIEK IZANGO BAITIRA, HAIN ZUZEN, NORTASUNA EMANGO DIETENAK.

MENDEBALDEKO SAHARAKO BIZTANLEEN

HARTZEN DUTE BATEZ ERE BANANDUTA DAUDENEK EDO ALARGUNEK EZKONDU BEHAR DUTENEAN. ADOS JARTZEN DIRA, NOSKI, ETA TALEB EDO EPAILE LANA EGITEN DUENAREN-GANA JOATEN DIRA BI LEKUKOREKIN. BATZUEK OSPAKIZUN TXIKIREN BAT EDO BESTE ERE EGITEN DUTE, ARKUME BAT HIL ETA LAGUN BATZUK GONBIDATUZ AFALTZERA, ADIBIDEZ.

EKITALDI HANDI ETA PUBLIKOA HAUTATZEN DUTENEK PROZESU LUZEAGOA EGITEN DUTE EZKONGAIEK ELKAR EZAGUTZEN DUTENETIK. EZKONDU AURRETIK HARREMANETAN HASTEN DIRENEAN, HARREMAN HORIEN BERRI EMAN BEHAR DIE SENARGAIK NESKAREN FAMILIAKO BATZUEI: AHIZPEI, IZEBEI ETA LAGUNEI LEHENDABIZI ETA, HAUEN BIDEZ, AMARI IRISTEN ZAIO BERRIA, BIDE EZ OFIZIALETIK. ORDUAN NESKA-

HARREMANETAN HASI ONDOREN BIRJINTASU-NARI EUSTEA LORTU ETA DEMOSTRATU NAHI DUTEN HELBURUA DA. ANDREGAIK SENAR-GAIARI EZKON-HARREMETARAKO BAIMENA EMATEN DIONEAN —BATZUETAN ASPALDITIK DATOR HARREMAN HAU, BAINA BESTE BATZUETAN BAT-BATEKO MAITEMINAREN ONDORIO DA—, AMARI AZALTZEN DIO BERE ERABAKIA ETA HONEK AITARI ADIERAZTEN DIO. KASU HONE-TAN EZIN DU ZUZENEAN AITARENGANA JO, ERRESPECTU KONTUAGATIK.

BESTE FAMILIARENGANAKO ERRESPECTUZ JOKATZEARREN, EZ DUTE NEGOZIAZIOETARAKO BESTE INORENGANA JOKO, PERTSONA HORI ONA EDO OSPE HANDIKOA IZAN ARREN, KASU BEREZIETAN EZ BADA. AITA EMAZTEAREKIN EZKONGAIAREN FAMILIAREN ETXERA JOATEA DA EGOKIENA ETA BERRIA JAIMAZ JAIMA ZABALDU-KO DA ORDUAN: HALAKO ETA HALAKO SEMEA-RENTZAT HALAKOREN ALABAREN ESKUA ESKA-TZERA JOAN DIRA.

GERTAKARI HAU IZUGARRI ZABALTZEN DA ETA AUZO ETA LAGUNEN ARTEAN KONTU UGARI SORTZEN DA. EGUN HORRETAN ANDREGAI-AREN FAMILIA SAHARAREN ARTEAN ETXERA DATOZENEI EGIN OHI ZAIEN HARRERA ONA EGI-TEKO ZEREGINETAN MURGILTZEN DA, ARE GEHIAGO ETXERA DATOZENAK HORRELAKO KONTUEKIN BADATOZ. ARKUME HANDI BAT HILTZEN DA ETA OTORDU BEREZIA EGITEN.

BAZKARI LEGEA AMAITU ONDOREN, BI TAL-DEETAKO AITAK BILTZEN DIRA APARTE ETA TEA HARTZEN DUTE PRIBATUAN. HAINBAT ITZULIN-GURU ETA LUZAMENDUREN ONDOREN, AZKE-NEAN ESAN BEHARREKOA ESATEN DU SENAR-GAIAREN AITAK: “GURE SEME X-RENTZAT ZURE ALABA X-REN ESKUA ESKATZERA ETORRI GA-TZAIZKIZU, ZURE FAMILIAREN ZINTZOTASUNA ETA OSPE ONA AINTZAT HARTUTA”. NORMALEAN ERANTZUNA EMATEKO EGUN BAT ZEHAZTEN DA, ERABAKIA HARTU AURRETIK GALDETU EGIN BEHARKO BAITZAI FAMILIAKO BESTE KIDE BATZUEI: OSABEI, ANAIA ZAHARRE-NEI ETA, BATZUETAN, BAITA LAGUN MINEI ERE. SAHARARRAK HARROAK DIRA BEREZ ETA EZ DIOTE EDOZERI MEN EGITEN, HALAKO ESKAE-REN AURREAN. BAIETZA LORTZEKO, PERTSONA ONA, ONDO HEZIA, AURRETIK OKER HANDIRIK EGIN GABEA, BERE BALIABIDE PROPIOAK DITUE-NA ETA ERANTZUKIZUN HANDIKOA IZAN BEHARKO DU SENARGAIK.

Testua eta argazkiak:
behia Mohamed Awah



HIZKUNTZA HASSANIA DA, ARABIERAREN DIA-LEKTO BAT. BERTAKO TRADIZIOAK ETA INGURU HONETAKO HISTORIALARI HANDIEK DIOTENEZ, DIALEKTO HONEN IZENA **HASSANIA** IZATEA-REN ARRAZOIA HAUXE DA: MUSULMANEN KON-KISTAREN ONDORENEAN INGURU HONETARA ETORRI ZIREN ARABIA-RRERK ASKO **HASSAN BEN ABDULAH BEN YAAFA** GERLARI ETA ESPEDIZIONARIO HANDIAREN ONDORENGOAK ETA, BERAZ, PROFETAREN SUHIA ZEN ALI KALIFA OSPETSUAREN ANAIAREN ONDORENGOAK DIRA.

BESTELAKO ITZULINGURURIK GABE, MENDEBALDEKO SAHARAKO HERRI HONEN KULTUR ERROEN BARNEAN EZKONTZA NABAR-MENDU NAHI DUGU. SAHARAR GIZON-EMAKU-MEEK EZKONTZEKO BI MODU DITUZTE: EKITAL-DI HANDI ETA PUBLIKOAN EGITEN DA BATA, SEKRETUAN BESTEA. BIGARREN BIDE HORI

MUTILAK ELKARREKIN DABILTZALA KONTSIDERA-TZEN DA, SENARGAIK NESKAREN FAMILIARI MAIZ EGITEN BAITIO BISITA, BATZUETAN BERTAN JATEN BAITU ETA LOTAN ERE BERTAN GERATZEN BAITA LANTZEAN BEHIN. HORRELA, PIXKANAKA, AITA ETA AITAREN ALDEKO OSABEIKIN IZAN EZIK, FAMILIAKO GAINERAKO KIDEEKIN HARREMANE-TAN HASTEN DA.

GARAI HONETAN EZKONGAIK AUZOKOEN EDO LAGUNEN ETXEAN ELKARTZEN DIRA, BAINA EZ DUTE INOIZ ELKAR UKITZEN, EZ DIOTE INOIZ MUSURIK EMATEN ELKARRI ETA EZ DUTE, NOSKI, SEXU-HARREMANIK IZATEN. ELKARRI ERRESPECTU HANDIA DIOTE, OHITURA ONDO GORDETZEN DUTE ETA FAMILIA BAKOITZAREN OSPEA ONDO ZAITZEN. ETA BESTE KULTURA BATZUETAKO JENDEARENTZAT HARRIGARRIA BADA ERE, EZKONGAIENTZAT ETA HAUEN FAMILIAKOEN-TZAT, EZKON-OSPAKIZUNEN LEHEN ASTEKO

Izaskun Fajardo Villaluenga

Gasteiztar honek 26 urte ditu "dagoeneko". Gasteizen jaioa den arren Legution bizi da laster ezkonduko denarekin. Legution gustura dago eta hara joatera bultzatu zuen arrazoia argia da: "han etxebizitzak merkeagoak dira".

Olabide Ikastolan ikasi eta gero Izaskunek Gestiorako Informatika egin zuen Donostian. Gaztea izanda ere denetarik egin du neska honek lan munduan: kafe makinak saldu, informatikako irakaslea izan da, klase partikularrak eman ditu, umeak zaindu..., eta duela 8 urte Zuaza irlan lan egiten du kiroletako espezialista modura. Etorkizunaren aurrean baikor agertzen da Izaskun. Bizitza ongi portatzen ari dela eta orain arte bezain ondo tratatzea espero du, "ez dut aldaketa handirik behar".

"Herriak gauza asko eskatzen ditu, baina ez gaitu inork entzuten"

• Duzun biziorik handiena? Misteriozko pelikulak. Mota horretako filmak ikusten hasten naizenean istorioan sartu eta ezin dut utzi.

• Eta bertutea?

Ez dakit bertuterik dudane... ja, ja, ja.

• Zer eskatzen diozu bizitzari?

Orain nagoen moduan jarraitzea. Pozik nago, ongi bizi naiz: bakea, maitasuna eta giro ona.

• Zer eskatzen du herriak?

Hainbeste gauza eskatzen ditu herriak... lasaitasuna, bakea... Gauza asko, baina ez gaitu inork entzuten.

• Jeniorik ba al duzu?

Nik, piloa. Nahiko burugogorra naiz eta pentsatzen dudanean egia nirekin dudala, hori izaten naiz jotake.

• Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gezurra eta hipokrisia. Ez ditut batere atsegin.

• Geuren berririk ba al daukazu?

Bai, etxean bazkideak gara, aspaldidanik gainera.

• Egunkari bat?

Guztiak irakurtzen ditut eta ez dut bat bera ere erosten.

• Pelikula onen bat?

"El hombre que vino del mar", bertan Ingalaterrara iristen den atzerritar baten istorioa kontatzen da, lan piloa egin behar izaten du jendeak onartzeko. Apur bat triste da.

• Telebistako programarik?

"El patito feo", munduko saiorik penagarriena da.

• Jaki goxoren bat?

Txokolatezko postreak, ezin dut sahiestu.

• Zure gorputzeko atalik politena?

Sudurra, izugarri gustatzen zait.

• Oporrak non eta zertarako?

Kanarietan lagunekin egoteko.

• Txikitako oroitzapenik?

Asko dauzkat baina bereziki nire amonaren arroza. Ostiraleko jaten genuen eta aste osoa eguna noiz iritsiko zain pasatzen genuen.

• Idazleren bat?

Dean. R. Koontz, misteriozko liburuak idazten ditu.

• Denbora izanez gero, zer edo nora edo zertarako?

Denbora izanez gero... urtebete kanpora, hegoamerikara adibidez, egoteko, jendea ezagutzeko, laguntzeko, bizitzeko.

• Gasteizek duen onena?

Oso hiri handia ez denez nahiko lasaia da, leku berde asko dauzka eta oso polita da.

• Eta txarrena?

Ez dago aparkatzeko lekurik

edo gero eta gutxiago daude. Gainera, 'kontenedoreek' lekua kentzen badute, argi daukagu. Oinezkoentzako zonalde gehiegi dago nire ustez.

• Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Bai, baina ez da erraza. Erakunde askotan asko itxaron behar da euskaraz hartuta izan ahal izateko, edonon ezin duzu euskaraz ogia erosi, baina nahi izanez gero euskaraz bizi daiteke.

• Zer nahiko zenuke jendeak esatea zu hil eta gero?

Lagun ona nintzela.

• Momentuko kezkarik handiena?

Ez dut momentu honetan kezka handirik. Politikaren arloan zer gertatuko den arduratzen nau, zer etorriko den.

• Kolorerik gustukoena?

Urdina.



EUSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



**Bukarest-eko Dinamon lau denboraldiz
egon eta gero aurtengoa du Cosmin
Contrak bere lehenengoa Alaves taldean.
24 urteko errumaniar hau gustura dago
arabarren artean, batez ere kideen arteko
harreman onak lagunduta. Bere ametsen
artean, Errumaniako selekzioarekin jokatzea.
Momentuz, denboraldi ona egitearekin
konformatzen da, hala ere.**

"Gasteizek antza handia du Timisoararekin"

Cosmin

CONTRA



- Zer nolako giroa aurkitu duzu taldean? Primerakoa. Egia esanda ez naiz inoiz horrelako giro ona dagoen taldean jokatu. Giro harrigarria dago jokalarion artean.

- Eta zaletu eta taldearen arteko harremana ere hain ona al da?

Ba bai, zaletuak oso ondo ari dira gurekin. Normalean jendeak bere taldeak beti irabaz dezala nahi izaten du, baina gu ez gara mesprezatuak sentitu etxean hiru edo lau partidurik galdu ditugunean ere. Hori asko eskertzen da eta harreman oparoa dakar.

- Eta euskal futbolaren mailari buruz, zer iritzi duzu?

Euskadiko lehen mailako hiru taldeak, hirurak, oso onak dira. Athletic UEFArako ari da borrokatzen eta gu ere horretan gabiltza. Errealari zailtxoago ari zaio egiten aurtengo denboraldia, baina aurreko urteotan aski ondo erakutsi du UEFAn edota Champions League-n egon daitekeela. Orokorrean futbol maila garaia dago, dudarik gabe.

- Aldera al daiteke euskal futbola zure herrialdeko, Errumaniako, futbolarekin? Ezin dira alderatu, hemengo txapelketa oso profesionala da. Errumanian hiru edo lau besterik ez dira UEFA edo Champions League-rako postuengatik lehiatzen direnak. Hangoa ez da hemengoa bezain txapelketa gogorra.

- Zerk eragiten du taldeen kopuruaren arteko desberdintasun hori?

Jaioterria:

Bukarest (Errumania)

Jaioteguna:

1975-12-15

Altuera/pisua:

180 cm / 74 kg

Trayectoria:

Bukarest-eko Dinamon

95-96, 96-97, 97-98 eta

98-99 denboraldietan.

Postua:

Eskubiko hegalekoa.

Abiadura handiz hegaletik

igo eta bere lekura

jaisten da.

Selekzioa:

23 aldiz sub-21ean

internazionala.

Diruak. Hemengo taldeek aurrekontu zabalagoak dituzte jokalariai hartzerako orduan, berdin gertatzen da gainontzeko materialarekin.

LAN GOGORRAREN BALIOA

- Hala ere, Alaves-en aurrekontua ere ez da oso altua... Zein da sekretua?

Ez, hori egia da. Alaves-ek ondo erakutsi du koska lan gogorrean dagoela. Bigarren egonda UEFArengatik lehia gaitezke eta emaitza hau ez da fitxaje milioidunei esker lortu. Aldageletan dagoen giro itzelak asko egiten du, baina batez ere lan kontua izaten ari da aurtengoa.

- Zenbat denboraldi gehiago lehenengo mailan?

Nigatik ehun urte gehiago egon zitekeen, baina gauza zaila da hori. Txapelketa gogorak etorriko dira eta oraindik hobeto jolasten jarraitu behar da lekua ziurtatzeko.

- Eta maila apur bat jaitsiz, osasun ona al du Euskadiko harrobiak?

Bai, oso jokalaria onak daude, talenturik badute behintzat. Herriko jendea aprobetxatu behar da eta hemen badago non hautatu.

- Zer moduz hartu zaitu Gasteizek, gustukoa al daukazu?

Bai oso hiri atsegina da eta gainera nire jaioterriarekin antza handia du: oso lasaia da, parke eta zelai ugariekin..., hori hurbilekoa egiten zait. Bestalde, Timisoara Gasteiz baino handiagoa da, ia milioi bat biztanle ditu.

- Zer iruditzen zaizu Mendizorrotza?

Gasteiz hiri txikia da, eta Mendizorrotza oso egokia eta polita iruditzen zait.

TAUk jolasten duen pabilioia ere zoragarria dela uste dut..

Herrikan kanpo

- Errumaniatik kanpo egonda, zeren falta nabaritzen duzu gehienbat?

Dinamon jolasten nengoela hiru edo lau lagun oso onak egin nituen eta horiek dira hemen izan nahiko nituzkeenak. Hala ere, lagun bikainak

egin ditut hemen ere,

eta horrek beste kideen eta familiaren falta nolabait leuntzen du.

- Zer moduzko egutegia duzue, gogorregia al da?

UEFAn edo ez gaudenean egutegia ez da gehiegizkoa; larunbat edo igandero partidua eta besterik ez. Champions-en dau-den taldeak, horiena bai egutegi pilatua.

- Nola definituko zenuke zeure burua?

Apur bat eroa naiz, hori onartzen dut. Baina pertsona ona naizela pentsatzea gustatzen zait. Jende gehienarekin ondo moldatzen naiz eta hori gustatzen zaidan ezaugarria da. Txantxetan dabilenarekin barre egiten dut, eta txantxa astunegia bada ere txarrera ez hartzen saiatzen naiz.

- Gogor entrenatzeaz gainera, zertan ematen du Cosmin Contrak eguna?

Bidaia behar ez dugunean entrenamendua izaten dugu. Ondoren, pixka bat jan eta siesta itzela egiten dut. Arratsaldeetan kalera irten, filmeren bat ikusi, etxean gelditu..., edonork egiten duena.



"Alaves-ek ondo erakutsi du koska lan gogorrean dagoela"

"Herriko jendea aprobetxatu behar da eta hemen badago non hautatu"

"Nire betiko ametsa Errumaniako selekzioarekin jolastea da"

• Liburu bat?

Errumanierazkoak irakurtzen ditut eta amodiozkoak eta polizi nobelak dira gustukoan ditudanak.

• Gasteizko leku bat?

Erdialdea asko gustatzen zait.

• Azkenengo oporrak?

Turkian, pasa den udan.

• Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Pazientzia handia daukat.

• Zein da gehien kezkatzen zaituena?

Denboraldia bukatu arte ondo jokatzeko.

Baina nire betiko ametsa Errumaniako

selekzioarekin jolastea da.

• Opari bat?

Edozein, zeini ez zaizkio atsegin opariak?

• Jakirik gogokoena?

Sagardotegietako txuletak.

• Illehorik ala beltzaranak?

Biak, baina nire neska ilehoria da.

• Euskaraz zerbait badakizu?

Gaztelaniaz ikasi behar dut lehenengo, baina euskara ikasteko asmoa ere badut.

• Mane?

Oso ondo konpontzen gara.

1 UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazulatuak
Aitzogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

12 TABERNA
R
A
JATETXEA
BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

plató
TABERNA
Zaldiaran Plaza, 10 • Tfno.: 945 22 65 64

IRUSTA
TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

Zeuk aukeratu!

PARRAL TABERNA. APIRILEKO AGENDA

4an. KONTZERTUA: JAN ETA EDAN (Gasteizkoak)
 11n. KONTZERTUA: GHOST RIDERS
 18an. KONTZERTUA: MIKEL TELLERIA
 25ean. IPUIN KONTALARIAK:
 EL VECINO DE AL LADO taldea,
 "Historia de poetas y mujeres" lanarekin

URTEURRENAK (Fite! boletinetik aterata)

7an: Osasunaren mundu mailako eguna
 22an: Lurraren eguna
 23an: Liburuaren Nazioarteko eguna
 26an: Gernikako bonbardeaketaren eta Chernobyl-eko hondamendiaren urteurrena

LEHIAKETAK

FANTASI IPUIN LABURREN VIII
 UNIBERTSITATE LEHIAKETA

FELIX UGARTE VIII ITZULPEN LEHIAKETA
 EPEA: 00-5-22
 INFORMAZIOA: EUSKAL HERRIKO
 UNIBERTSITATEA-ARABAKO KANPUSEKO
 ERREKTOREORDETZA (Izardui Komandantea, 2
 614 Postakutxa-01006-GASTEIZ)

IGARTZA SARIA.
 III. LITERATUR
 SORKUNTZAKO BEKA
 IDAZLE BERRIENTZAT
 INFORMAZIOA:
 BEASAINGO UDALA
 EPEA: 00-6-30

TAILERRAK ETA IKASTAROK

SEXUALITATE TAILERRA
 Antolatzailea: SUMENDI ELKARTEA
 Noiz: Apirilak 8-9



Geu aldizkariak gomendatzen du

ELKARLANEAN-EN ESKUTIK:

MIKEL LABOA: "Gernika. Zuzenean 2"
 Euskadiko Gazte
 Orkestra eta
 Donostiako
 Orfeoiaren lagun-
 tzaz, Mikel Laboak
 bere kanturik herri-
 koienak aletzen
 ditu



JC PEREZ: "Ikaro"
 "Atlantic River" eta
 "Hau Berua" kaleratu
 eta zinerako, telebis-
 tarako... musika eta
 lan piloa burutu
 ondoren, IKAROn
 gaianen datorkigu
 oraingoan ITOIZ tal-
 deko sortzaile, konpositore eta aitzindaria
 izan zen Juan Carlos Perez. Honakoa, bere
 lanik biluzi eta zuzenena dugu, kantu emo-
 zionagarriak beteriko hegaldia. Zuzenekoari
 begira, bi modutan agertuko dira kantuok:
 batetik, zuzeneko emanaldiak; bestetik,
 Maskarada antzerki taldearen Ikaro antzez-
 lanean ere arituko dira kanta zuzenean
 eskaintzen.



ARRIAGA
 LIBURUDENDAREN
 ESKUTIK:



MIKEL TELLERIA:
 "DEKLARAZIOA"
 GAZTELUPEKO HOTSAK
 Haritz libreei dedikatutako
 poesiaz beteriko kantak...



ZALDUONDOKO KULTUR
 ELKARTEAREN ESKUTIK
 Maiatzaren 19 arte: "MENDIKEA 41"
 ERAKUSKETA KOLEKTIBOA
 TOKIA: Lazarraga Jauregia. ZALDUONDO
 (Araba). 945 30 43 93
 Araba eta Nafarroako artistak: Agurtzane
 Villate (Gasteiz), Iñaki Otxoa (Iruñea),
 Enrique Benito eta Tomas Astiz (Nafarroa).

geurekin mendira **VALLEGRULL (1226)** **(Valderejo-Lalastra)**

NOIZ:

Apirilaren 16an

IRTEERA:

9:30etan Prado kalean,
Txapela tabernaren aurrean.
Kotxez joango gara

ITZULERA:

16:00ak aldera
(gutxi gora-behera)

IBILBIDEA:

Lalastratik San Lorenzo
baselizara, handik
Vallegrullera, eta bueltan
El Cubo deritzan lekutik
jaitsi.

EDOZEIN ARGIBIDETARAKO
DEITU TELEFONO HONETARA:
945 14 01 58 (KIKE)

Lehiaketa



Entzun! Musika aldizkaria hilero zure etxean jaso nahi duzula?

Ba... bidali lehenbailehen galdera honen erantzuna -izena (ALDIZKARIKO ETIKETAN agertzen dena) eta telefono zenbakiarekin batera- Geu aldizkarira (helbidea, 4. orrialdean), Entzun! aldizkariako urte osoko harpidetza zozketatzen baitugu berau asmatzen duzuen artean.

Apirileko galdera:
Otsaila-martxoa bitartean
Gasteizko oso kantari
gazte batek bere lehen dis-
koa aurkeztu zuen, euska-
ra eta gaztelerazko kantak
biltzen dituen. Nor dugu?

Martxoko irabazlea: Elena eta
Deiene urzelai Altuna

Erantzuna: Donostia • ZORIONAK! •

***EMAITZA ETA SARITUA DATO-**
RREN ALEAN (MAIATZEAN)

***LEHIAKETAN ESKU HARTZEKO HARPIDE-**
DUN IZATEA EZINBESTEKOA DA
(ETIKETAREN IZENA ZEHATZU).

GURIDI

SAMANIEGO

YOYES

Zuzendaria: Helena Taberna
Aktoreak: Ana Torrent, Ernesto
Alterio, Florence Pernel, Iñaki
Aierra, Ramon Langa, Isabel Ordaz,
Juan Jesus Valverde, Laura Ballesta

Yoyes, ETAn ardurak izan zituen lehen emakumea, Mexikoko erbestetik itzultzen da eta bere bizitza berregiten saiatzen da. Baina bere itzuleraz ez da erraza. Bera aldatu egin da, unibertsitaterik karrera bat ikasi du, NBEn lan egin du, ama izan da. Bien bitartean, bere herrian biolentzia gai nagusia da egunkarietako lehen orrietan. Yoyes ahazten eta ahaztua izaten saiatu da, baina bera joandako urteek mito bihurtzeko baino ez dute balio izan. Bere lehengo arma-kideek traiziotzat hartzen dute bere itzul-tzea. Berak bere lurra maite du, bere paisaia urtu nahi du, baina udazkenak hosto hilak

baino zerbait gehiago ekarriko du...

ERIN BROCKOVICH

Zuzendaria: Steven Soderbergh
Aktoreak: Julia Roberts, A. Finney,
Aaron Eckhart, M. Belgenberger,
Cherry Jones, Peter Coyote, Scotty
Leavenworth

Benetako istorioan oinarritutako filma. Julia Roberts Erin Brockovich da. Kotxe istripu baten ondorioz Erinek Ed abokatua ezagutuko du, eta geroago bere bulegoan lan egiten hasiko da. Bertan txosten mediko batzuk topatzen ditu eraikuntza-enpresa artxibo batzuen artean... Aztertu eta tartean heriotza dakarten ur kutsatuak daudela ohartzen da... Hemendik aurrera Erin zailtasunik zailtasun joango da, eta azkenean giza izaera garaile suertatuko da.

APIRILEKO ESTREINALDIAK

✓ Ataque verbal ✓ Blanco perfecto ✓ El arte de morir ✓ Screen III ✓ Poke mon
✓ La Princesa Mononoke ✓ Trabajo de amor perdido ✓ El hotel del millón de dólares
✓ RKO ✓ Sé quién eres ✓ Play it to the bone ✓ Mi pequeño negocio ✓ Story
of us ✓ Ave María ✓ Elmo ✓ Misión a Marte ✓ La maladie de Sach ✓ 28 días

ADI LEHIAKETARI!!!

GURIDI ETA SAMANIEGO ZINEMEN ESKUTIK MARTXORAKO ZINEMARAKO 2 SARRERA ZOZKETATZEN DITUGU ERANTZUNA ASMATZEN DUZUEN HARPIDEDUNEN ARTEAN.

Martxoko erantzuna: EMAKUMEAK ZINEMAGINTZAN ZIKLOA: "Todo sobre mi madre", "Cuando vuelvas a mi lado", "Flores de otro mundo", "Solás"

Irabazlea: XABI GONZALEZ SAEZ ZORIONAK!!!

Apirileko GALDERA: Bake kalean duela zenbait urte bazegoen zine areto bat... Nola zuen izena?

*Erantzuna eta saridunak datorren alean BIDALI ERANTZUNA GEU ALDIZKARIARA (4. orrialdea)
...bilaren 20a baino lehen. POSTAZ EDO E-MAIL-EZ, ZUEN IZENA (ETIKETAKOA) ETA TFNO. ZENBAKIA ZEHATZUZ.

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú...

Euskal oihalak: mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra

Opariak eta euskal oroigarriak

NON BAIT

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ

Tel./faxa: 945 232229
nonbait@nonbait.com

Z
U
R
E

E
U
S
K
A
L

D
E
N
D
A
K

Txerokiren abenturak



Eh, lagunok!
Goazen denok mundua
garbitzera! "Labezomorro:
Alde Hemendik", GOBERNUZ
kanpoko erakundeak
zure laguntza
Behar du!

Nagusi!
distikari eta
gominak hirian
desagertuta daude.
Zer egingo
dugu, jauna?

Kakazaharra!
Hau txerokiren
amarrua da...
Galduta gaude!

Jauna,
Bai jauna!!

txistua
erabili,
memeloa!




HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa Argibideak eta Erregistroa Errolda Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prentsa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	010 16 11 88 16 11 06 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Dato kalea, 11 Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza Arkitektura Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11 Sta. Maria kalea, 11	16 13 25 16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Aldabe	Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Sefarad plaza, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 18 80 16 17 50 16 17 40 17 17 81 16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Zerbitzua Kontzientzia Eragozpena Kirola Europar Mugimenduaren E.K. Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 33 16 12 61 16 36 91 16 15 19 16 15 57 16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa Antolakuntza	Agirrelanda, 8 Agirrelanda, 8	16 14 58 16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

